



ABANDOKO  
SAN BIZENTE MARTIRIAREN  
PARROKIA

PARROQUIA  
DE SAN VICENTE MÁRTIR  
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)  
T. 94 423 12 96  
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

## EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Horrek Espiritu Santuaz eta suz bataiatuko zaituzte”

2022ko urtarrilaren 9a  
Jaunaren Bataioa (C)

### Lukas 3, 15-16; 21-22.

Herria zain-zain zegoen eta denak ari ziren pentsatzen Joan ez ote zen Mesias izango. Joanek, ordea, denen aurrean esan zuen: “Nik urez bataiatzen zaituztet, baina badator ni baino ahaltsuago dena, eta ni ez naiz inor haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere; horrek Espiritu Santuaz eta suz bataiatuko zaituzte.

Herri guztia bataiatzen ari zela, Jesus ere bataiatu egin zen eta, otoitzean zegoela, zerua zabaldu eta Espiritu Santua jaitsi zitzaion gainera, uso-tankeran agertuz. Eta mintzo hau etorri zen zerutik: “Zu zaitut neure Semea, neure maitea, zu zaitut atsegin”.

“Zu zaitut neure Semea, neure maitea, zu zaitut atsegin”

## ESPIRITUALITATE BERRIA

*Jose Antonio Pagola*

«**Espiritualitatea**» ez da hitz jatorra. Batzuei baliorik ez duen zerbait iradokitzen die, bizitza errealetik at dagoen zerbait. Zertarako dateke on? Axola duena gauza zehatza da, gauza praktikoa, materiala, eta ez espiritualik ezer.

Halaz guztiz, pertsonaren «espiritua» baliozkotzat emana da egungo gizartean, zeren haren bizitzako gauzarik sakonena eta erabakitzaileena adierazten baitu: hura animatzen duen sua, haren inspirazio sakonena, gainerakoei kutsatzen diena, pertsona hori munduan ezartzen ari dena.

Espirituak arnasten ditu gure egitasmoak eta konpromisoak, eratzen ditu balioez gure horizontea eta gure esperantza. Nolakoa gure espiritua, halakoa gure espiritualitatea. Eta halakoak izanen dira gure erlijioa eta gure bizitza osoa ere.

Lehen kristauak guri eskualdatu testuek agertzen digute ezen «mugimendu espiritual» indartsu bezala bizi zutela Jesu Kristorekiko fedea. Jesusen Espirituaren bizilekutzat zuten bere burua. Espiritu horrengan bataiatua izan dena bakarrik da kristau. «*Kristoren Espiritua ez duena ez da haren ikasle*». Espiritu horrek arnasturik, beste era batean bizi zuten guztia.

Haien baitan lehenik aldatzen den gauza Jainkoarekiko esperientzia da. Ez dira bizi jada «*esklaboen espirituaz*», Jainkoarekiko beldurraz estu, baizik «*seme-alaben espirituaz*», Aitak baldintzarik gabe eta mugarik gabe maite dituela sentituz. Jesusen Espirituak bihotz barnetik eginarazten die oiuhu hau: Abba, Aita! Esperientzia hau da Jesusen elkarteetan kide guztiek lortu beharko luketen lehenengo gauza.

Erljioa bizitzeko era ere aldatu egin da haiengan. Beren burua ez dute sentitzen jadanik «*legearen gatibu*», arauen eta aginduen mendeko, baizik maitasunak askaturiko. Ezagutu zuten zer den «*espiritu berriaz*» bizitzea, maitasunaren deia entzunez, eta ez «*letra zaharraren arabera*», betebeharrak erlijiosoak betetzeari emanik. Horra guztion artean kristau-elkarteetan zaindu eta sustatu beharko genukeen bizigiroa, baldin eta Jesus bezala bizi nahi badugu.

Orobat aurkitu zuten Jainkoarekiko kultuaren benetako edukia. Aitari atsegin zaiona, ez dira maitasunik gabeko errituak, baizik «*espirituaren eta egiaren arabera*» bizi gaitzen. Jesusen espirituaren eta haren ebanjelioaren egiaren arabera bizitako bizia da kristautentzat beren benetako «*kultu espiritual*».

Ez genuke ahaztu behar Tartsoko Paulok bere elkarteei esaten zien hau: «**Ez itzali zeuen baitan Espiritua**». Itzalia den elizak, Kristoren espiriturik gabe denak, ezin bizi du, ez komunikatu, haren egiazko Berritasuna. Ezin dastatu du, ez kutsatu, haren Berri Ona. Kristau-espiritualitatea zaintzea gure erlijioa biziberritzea da.